ERNESTO MARTINEZ DE CABREDO ARRIETA JAUNA

USURBILGO UDALEKO ALKATEA  
AGURTZANE SOLABERRIETA MESA ANDREA

USURBILGO UDALEKO IDAZKARIA  
XABIN JUARISTI ARRIETA JAUNA







Usurbilgo Udala

2024/02/29

# 1. Agiria





Usurbilgo Udala

2024/02/29

## TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Nora Erdozia Ibañez andereak, lankidetzeta-hitzarmena aztertu ostean, 2023ko azaroaren 17an aldeko txostena idatzi du. Hitzez hitz honela dio:

### BULEGO TEKNIKOA - HIRIGINTZA

---

GAIA:	Usurbilgo Udalak eta Eusko Trenbide Sareak adostutako hitzarmenari buruzko hirigintza txostena
KOKAPENA:	TXOKOALDE - USURBIL
DATA:	2023ko azaroa
ESPEDIENTE ZK:	2023 HITZ 0007
Erlazionatutako espedienteak: 2023 OHAN 0021 – HZ.10/2021-0403	

---

### AURREKARIAK

#### AGINAGAKO TUNELAREN ERAIKUNTZA PROIEKTUA (HZ.10/2021-0403)

2008ko abuztuaren 7an, 3367 sarrera zenbakia duen idatzia jaso zuen Udalak. Aginagako tunela eraikitze proiektuak ingurumenean duen eraginaren aurreiazko kontsulta eginez eta udalaren iritzia eskatuz. 2008ko irailaren 19an 4312 irteera zenbakia duen idatziarekin, Usurbilgo Udalak hainbat eskaera egin zituen.

Usurbilgo Udalak 2009ko maiatzaren 25ean, 2381 sarrera zenbakia duen idatzia eta Aginagako tunelaren egikaritze proiektua jaso zituen eta Udalak alegazioa aurkeztu zuen.

2021eko azaroak 5ean, GAO-n 2021eko urriaren 21eko Garraio Azpiegituren zuzendariaren ebazpena argitaratzen da, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita “Aginagako tunelaren eraikuntza proiektua” eta dagokion Ingurumen-inpaktuaren azterketa.

2021eko abenduak 15ean 2021/1039 dekretu bidez Usurbilgo Udalak alegazioak aurkeztu zituen. 2022ko maiatzak 4ean Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendariak alegazioei erantzun zien, izaera orokorrez, ezezkoa erantzunez.

2022ko urriaren 7an, “Aginagako tunelaren eraikuntza proiektua” eta dagokion Ingurumen-inpaktuaren azterketa berriz ere jendaurrean jartzen dira, Kostaldeko eta Itsasoko Zuzendaritza Nagusiak aurkeztutako alegazioaren ondorioz proiektua egokitu behar izan delako.

2022ko abenduak 1eko 2022/1181 dekretu bidez Usurbilgo Udalak alegazioak aurkeztu zituen. 2023ko urriaren 4ean Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendariak alegazioei erantzun zien, izaera orokorrez ezezkoa erantzunez, eta bi gai hauetan honakoak aipatuz:

- Txokoaldeko zubiari dagokionez, zubia indartzeko ETS eta Udalaren arteko hitzarmena bat sinatzeko akordio aukera

- Tunelaren obra egiteak eta tren zerbitzuaren 15 minutuko maiztasun berriak Txokoaldeko egunerokotasunean izango duen eraginaren inguruan dio: *“trenbide-pasaguneen segurtasun- eta edukiera-baldintzak aldatzen direnean, berrikusi egiten direla, indarrean dagoen zirkulazioko segurtasun-araudia betetzeko, eta behar izanez gero segurtasun-neurri berriak hartzen direla. Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzak trenbide-pasaguneak kentzeko konpromisoa hartzen du, eta, horretarako, Trenbide Pasaguneak Kentzeko Plan bat ezarri du. Plan horretan, Trenbide Pasaguneak efizientzia-irizpideen arabera lehenesten ditu, inbertsioaren segurtasuna, arriskugarritasuna eta efizientzia kontuan hartuta.”*

Gaur egun, ETSren “Aginagako tunelaren eraikuntza proiektua”ren Ohiko Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko izapidetzeari (EIAO-125INET) buruzko ebazpena eman



Usurbilgo Udala

2024/02/29

gabe dago baina ETS-k aldeko ebazpena izatea eta proiektuaren exekuzioa 2024 urtean hastea aurreikusten du.

### TXOKOALDEKO ZUBIAREN EGUNGO EGOERA ETA BIRGAITZE PROIEKTUA (HZ.10/2018-0304 - 2023 OHAN)

Oria ibaiak Usurbilgo udalerrira ekialdetik mendebaldera zeharkatzen du, eta ibaiaren bi ertzak lotuz Usurbilek hainbat zubi ditu. Udalerrian mendebaldean kokatzen dena da "Altzonazko zubia" edo egun esaten zaion moduan "Txokoaldeko zubia", Aginaga eta Txokoaldeko auzoak lotzen dituena.

Jatorrizko zubia, "Aginagako Geltokiruntz" doan bidearen zati bat zen eta trenbideko ingeniariak berek proiektatutako eraikuntza zen eta egungo zubia baino estuago eta laburragoa zen.

1953ko uholdeek orduko zubia hondatu zuten. Bost urte geroago, 1958 urtean zubia konpondu eta handitu egin zen, gaur egun dagoen zubia berreraikiz. Zubi berria, Oria ibai gaineko zatian lau harri-habek eusten dute, eta Aginagako partean erriberaren gaineko zatian beste hiruk. Berreraikitze lanak egin zirenean zubia erribera gainean luzatu zen ur goraldietan zubia oztopo izan ez zedin.

1985 urtera arte Txokoaldeko zubiko errepidea, eta ondorioz zubia ere bai, Foru-Diputazioaren errepidea izan zen. 1985ko maiatzaren 28an, Foru Diputatu Kontseiluak ospatutako batzarraldian erabakitako hitzarmenean ordura arte Foru-Diputazioarena zen 723.zenbakidun "Aginagako Geltokiruntz" errepidea (luzera 621 m eta zabalera 4,90m) aurrerantzean udal-errepidea izatea adostu zen. Halaber, Usurbilgo Udalbatzak, 1985ko ekainaren 26an erabaki zuen Alkate-Lehendakari jaunari ahalmena ematea, aipatutako errepide-lagapena onar zezan.

1993 urtean Usurbilgo Udalak Txokoaldeko zubiaren egoeraren inguruan egin zuen txostenak gomendatzen du zubia premiaz konpontzea eta zubiaren gaineko pasabidea mugatzea, gehienez ere guztira 3 tonako pisua duten ibilgailuak baimenduz. Hala, 2000 urtean Freyssinet enpresak Txokoalde zubia birgaitu eta sendotu zuen eta bere euste-ahalmena 15 tonaraino handitu zen.

Urteak igaro ahala, zubiaren egiturak dituen arazoak tarteko, euste-ahalmena 12 tonaraino murriztu eta zubiaren erdiko ardatzetik kanpo ez zirkulatzea gomendatu zen, zubia egoera txarrean dagoelako. Karga horiek baino handiagoko ibilgailuek zubia erabili ahal izateko, ezinbestean zubia modu esanguratsuan indartu beharko da.

Usurbilgo Udalak, 2018an "Txokoaldeko zubiaren birgaitze proiektua" enkargatu zion Girder ingeniariari. Aukera ezberdinak aztertu ondoren, proiektuak zubiaren egungo habeak aurrefabrikatu habe batzuekin ordezkatzeko eta taula ere guztiz berreraikitzea proposatzen zuen, modu honetan 50 tonako euste-ahalmena lortuz. Taula berria egiten zenez, zubia zabaltzea proposatzen da egungo 5 metroetatik 7 metroko zabalera hartuz.

### AGINAGAKO TUNELA ERAIKI AHAL IZATEKO ZUBIA BIRGAITZEKO BEHARRA

Txokoaldeko zubia egun ez da gai pisu handiko ibilgailuak jasateko (euste ahalmena 12 tonara mugatua du) eta beraz, Aginagako tunela eraiki ahal izateko, ezinbestean Txokoaldeko zubia birgaitu behar da.

Zentzu honetan gogorarazi behar da ETSren Aginagako tunelaren proiektuak, 1,3 kilometro luze duen tunela eraikitzea aurreikusten duela hiru urte inguruko iraupena izango duen obra eginez. Tuneleko obratik hondeatutako 122.000 m<sup>3</sup> lur inguru Meagasko zabortegira eramatea aurreikusten da proiektuan eta obra egiteko sarbide bakarra Txokoaldetik izanik, beharrezkoa da zubia birgaitzea tunela eraiki ahal izateko.

Tunela eraiki ahal izateko, 2018ko Txokoaldeko zubia birgaitzeko proiektua berrikusi da, URA uraren euskal agentziak ezarritako eskakizunetara egokitzeko eta zubiaren plataformaren akaberetan aldaketak eginez, mugikortasun modu desberdinak bereizteko helburuz. Hala, ETS-k aginduta, Girder ingeniariak *Txokoaldeko zubiaren birgaitze proiektuaren* berrikuspena idatzi du 2023an.

Aipatu behar da proiektuaren berrikuspena Usurbilgo Udalarekin elkarlanean egin dela



eta ondorioz udalak proposatutako zuzenketa edo hobekuntzak txertatu dira, tartean zubiaren akaberen sekzioari dagozkionak, aurreko proiektuarekin alderatuta orain mugitzeko moduak berezi bait dira: 2,00 m-ko bidegorria, 2,75 m-ko zirkulazio-errei txandakatua eta 2,00 m-ko espaloia.

Proiektuaren aurrekontua %21eko BEZ barne 1.417.026,50 eurokoa da eta exekuzio denbora 7 hilabetekoa izatea aurreikusten da.

Karga-ahalmenari dagokionez, planteatutako soluzioa aztertu ondoren, taularen egitura muturreko egoeretan 50 tonako ibilgailuen kargak jasateko gai dela ondorioztatu da. Egituraren zerbitzuko bizitzako egoera konbentzionaletarako, 30 tonako karga muga ezartzen da.

### AGINAGAKO TUNELA ERAIKITZEAK TXOKOALDEKO EGUNEROKOTASUNEAN IZANGO DUREN ERAGINA

Aginagako tunelaren obrak tren zerbitzua indartzeko eta haren segurtasuna hobetzeko garrantzi handiko proiektua bada ere, 15 minutuko frekuentzia lortuz trenaren maiztasuna areagotzeko ezinbestean eragin zuzena izango du Txokoalde auzoak. Batetik, obra egiten ari diren bitartean honek ekarriko dituen eragozpen guztiak. Bestetik, kontutan izanda proiektuak Txokoaldeko trenbide gaineko pasaguneak bere horretan mantentzen dituela eta maiztasuna areagotuko dela, trenarengatik igarobideak itxita egongo diren tartea luzatu egingo dira (2 norantzetan, 15 minuturo, eta trena igaro aurretik eta ondoren itxita egongo da).

Hortaz, proiektuak Txokoaldeko pasagunearen arazoa areagotuko duela jakinda, egoera aintzat hartu, xehetasunez aztertu eta egoeraren aurrean konponbide bat proposatzea eskatu zen egindako alegaziotan eta ondorioz, bi administrazioek beharrezko jo dute Txokoaldeko trenbide pasagunea kentzeko edo horren erabilera baldintzak hobetzeko aukerak aztertzea, tunelak Txokoalden sortuko dituen afekzioak murrizteko helburuz.

Bestalde, Txokoaldeko bizilagunek trenbidearen afekzioak pairatzen badituzte ere, gaur egun ez dute tren zerbitzurik auzoan bertan zegoen tren geltokia zerbitzuz kanpo utzi zelako. Usurbilgo Udalak Txokoaldeko tren-geltokia zaharra noiz behinkako frekuentziarekin berreskuratzeko eskaera egin dio sarritan ETS-ri, baina honek zerbitzu orkorra okertuko duelako eta ekonomikoki ere bideragarri ez dela defendatu izan du eta ezezkoa eman du. Alternatiba moduan, Txokoalde eta Usurbilgo tren geltokia elkartuko dituen Tren-Bus zerbitzua ezartzea ere eskatu izan da baina ETS-k aukera hau ez du baleko jotzen.

### **TXOSTENA**

Aurrekarietan azaldutako testuinguruan, Usurbilgo Udalak eta Eusko Trenbide Sareak (ETS) hitzarmen bat sinatu nahi dute, TXOKOALDEKO ZUBIA BIRGAITU ETA SENDOTZEKO, ETA AGINAGAKO TUNELAREN OBRAK TXOKOALDE AUZOAN IZANGO DITUEN ERAGINAK MURRIZTEKO NEURRIAK HARTZEKO.

#### Hitzarmenaren helburuak honakoak dira:

1. Txokoaldeko zubia birgaitzeko eta sendotzeko baldintzak ezartzea, bereziki ETS-k Aginagako tunela eraikitzekeo zubiaren berreraikitzekeo duen beharrak bultzatuta.
2. Txokoalde auzoan ETS-k egingo dituen Aginagako tunelaren obraren inpaktuak murrizteko neurriak eta, obrak amaitutakoan eta maiztasuna handituta, trenbide-zerbitzuak izango duten eragina murrizteko baldintzak ezartzea; zehazki Txokoaldeko trenbide-pasaguneari dagozkionak
3. Aurrez deskribatutako helburuak betetzeko beharrezkoak diren esku-hartzeak eta jarduketak bultzatzeko, finantzatzeko eta gauzatzeko adostutako baldintzak arautzea.

#### Aginagako tunelaren saihebidetaren proiektuaren Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa:

Aurrekarietan azaldu bezala, Eusko Jaurlaritzak oraindik ez du eman "Aginagako tunelaren eraikuntza proiektua"ren Ohiko Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko



izapidetzeari (EIAO-125INET) buruzko ebazpena.

Horregatik, hitzarmena erabat baldintzatuta geratzen da, –etete-ondorioekin eta halabeharrez eta baldintzarik gabe–, ingurumen-agintaritzak ETSren Aginagako tunelaren saihebidetaren proiektuaren aldeko IIE bat eman dezan, eta hala jaso da hitzarmenean bertan.

#### ETS - Eusko Trenbide Sareak hartutako konpromisoak

##### 1- Txokoaldeko zubia birgaitzeko lanei dagokionez

- Txokoaldeko zubia birgaitzeko proiektua idaztea (egina dago)
- Txokoaldeko zubiko obraren exekuzioa lizitatu eta kontratatzea.
- Txokoaldeko zubiko obrak zuzentzea, gainbegiratzea eta teknikoki ikuskatzea, garapenean sor daitezkeen gorabeheren berri Usurbilgo Udalarari emanez.
- Txokoaldeko zubia birgaitzeko eta indartzeko jarduera guztiak finantzatzea, Usurbilgo Udalak jarriko dituen 300.000 € izan ezik (zubia birgaitzeko proiektuaren aurrekontua 1.417.026,50 eurokoa da BEZa barne).
- Kontratuaren aldaketan, prezioen berrikuspenen eta/edo, oro har, hitzarmen honetako jarduerak garatzean sortzen den edozein gorabeheraren ondorioz esleipen-prezioaren gainean gertatzen den edozein igoera ekonomikori aurre egitea.
- Aginagako tuneleko obrak egiten diren bitartean, Txokoaldeko zubia bere osotasunean eta garbi mantentzea, eta gainera obrak zubiari eragiten dituzten kalteen erantzukizuna bere gain hartzea.

##### 2- Trenbideak Txokoalde auzoan duen iragazkortasuna eta integrazioa hobetzeko jarduketari dagokienez

- Aginagako tunela eraikitzeko proiektuan, obrara iristeko bidea hitzarmenean erantsi den planoetan jasotzen den bezala izango da. Gaur egungo proiektuan obrara edo tunelaren ahora iristeko bidea aldatzeko eskatu izan da Txokoaldek bertara doan egungo herri bidea 5m arte zabaltzea jasotzen baita eta horrek derrigor inguru txikitzea ekarriko duelako. Aipatu behar da udalak bide alternatibo bat proposatu zuela, Txokoalden trenbidea gurutzatu aurretik eta aparkalekutik bertatik, trenbidearen paralelo eta erriberatik bidea egitea (bide batez etorkizuneko Foru Aldundiko bidegorrirako probestu zitekeena) baina ETS-k ez zuen onartu. Hori ezean, bidea bere osotasunean 5 m ez zabaltzea onartu da eta ingurura hobeto egokituko den soluzioa jaso da aipatu bi planoetan.
- ETSk konpromisoa hartzen du Udalarekin lankidetzan, Txokoaldeko egungo trenbide-pasagunea kentzeko aukera eman dezaketean aukera teknikoak aztertzeko, trenbidea beste maila batean gurutzatu ahal izateko. Horretarako, hitzarmen hau sinatzen denetik urte beteko epean, lan-batzorde tekniko bat eratuko da ETSren eta Usurbilgo Udalaren artean.

#### Usurbilgo Udalak hartutako konpromisoak

##### 1- Txokoaldeko zubia birgaitzeko lanei dagokionez

- ETSri lagatzea, jabetza intelektualaren eskubideak erabat eskualdatuz, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 308.1 artikulua araberak, Usurbilgo Txokoaldeko zubia birgaitzeko proiektua, Girder Ingenieros SLP enpresak udalarentzat egina.
- ETSk idatzi beharreko Txokoaldeko zubia birgaitzeko eraikuntza-proiektua onartzea.
- Euskal Trenbide Sarearekin lankidetzan aritzea, eta hitzarmen honen xede diren jarduketan dokumentuak eta proiektua idazteko behar den laguntza aktiboa ematea. Zentzu horretan Usurbilgo Udalak obra-baimenaren eskaera izapidetu beharko dio Gipuzkoako Kostaldeko Zerbitzu Probintzialari, Uraren Euskal Agentziari (URA), eta Kostaldeko Zerbitzu Probintzialarekin eguneratu



eta/edo formalizatu beharko du, hala badagokio, Txokoalde zubiari lotutako itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa okupatzeko baimena.

- Obra-zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea.
- ETSren esku jartzea, kargarik gabe eta doan, hitzarmen honen xede diren jarduketak gauzatzeko behar diren bere titulartasuneko lurzoru eta/edo hegalkinak.
- Hitzarmen honen xede diren jarduketan kostua 300.000,00 € finantzatzea. Kopuru hori ordantzeko modua honakoa izango da: 100.000 €, Udalari obraren esleipena jakinarazten dionetik hilabeteko epean. 100.000 € lehen ordainketa egin eta hurrengo urtean. Azken 100.000 euroak, bigarren ordainketa egin eta hurrengo urtean.
- Txokoalde zubia osorik, bere kargura eta egoera ezin hobean eta segurtasun osoz mantendu, garbitu eta kontserbatzea, hitzarmen honen xede diren Txokoaldeko zubiko obrak hartu ondoren, Aginagako tuneleko obrak egiten diren bitartean ETS-ri dagokiona izan ezik.
- Usurbilgo hirigintza-plangintza egokitzea, beharrezkoa izanez gero, hitzarmen honen xede diren jarduketak garatzeko.

2- Trenbideak Txokoalde auzoan duen iragazkortasuna eta integrazioa hobetzeko jarduketei dagokienez

- Usurbilgo Udalak, ETSrekin lankidetzan, ETSren eta Usurbilgo Udalaren artean lan-batzorde tekniko bat eratzeke konpromisoa hartu du, hitzarmen hau sinatu eta urtebeteko epean, Txokoaldeko egungo pasagunea kentzeko aukera teknikoak aztertzeke.
- Usurbilgo hirigintza-plangintza egokitzea, beharrezkoa izanez gero, hitzarmen honen xede diren jarduketak garatzeko.

Aztertu da Usurbilgo udalak eta Eusko Trenbide Sareak adostu duten hitzarmena eta baita hitzarmenaren xede den *Txokoaldeko zubiaren birgaitze proiektuaren* berrikuspen proiektua, 2023 urtean Girder ingeniariak idatzi duena ETS-k aginduta.

Aurrekarietan aipatu bezala, ETS-k proiektuaren berrikuspena Usurbilgo Udalarekin elkarlanean egin du eta ondorioz udalak proposatutako zuzenketa edo hobekuntzak txertatu dira. Hala, Usurbilgo Udalak 2023ko azaroan alkate dekretu bidez *Txokoaldeko zubiaren birgaitze proiektuaren* 2023an idatzi den berrikuspen proiektua onartu du eta dagozkion udalaz gaindiko administrazioetan proiektuan jasotako obrak baimentzeko eskaera egin da. Halaber, proiektua Añarbeko Urak-i bidali zaio ere, bere azpiegiturak bertatik pasatzen direlako.

Azkenik, baimenei dagokionez aipatu behar da Usurbilgo Udalak 2023ko ekainaren 5eko alkatezaren dekretuaren bidez, erabaki zuen Gipuzkoako Itsasertzeko Zerbitzu Probintzialari administrazio-emakida eskatzea Usurbilgo Oria ibaiaren gainean Txokoaldeko zubiaren itsas-lehorreko jabari publikoko 463,42 m<sup>2</sup>-ko azalera okupatzeko. DPMTren ondasunak okupatzeko Udalak egindako emakida-eskaera 2018an idatzitako *Txokoaldeko zubiaren birgaitze proiektua* ren arabera egin bazen ere, 2023ko urrian Gipuzkoako Itsasertzeko Zerbitzu Probintzialarekin adostuta proiektu berrikusia bidali zaie Txokoaldeko zubia legezatzeko eta birgaitzeko egindako eskaeran ordezteko. Proiektu berriaren emakidarekin batera, "*Txokoaldeko zubiaren birgaitze proiektua*"-ren birgaitze lanak ere baimendu daitezke. (2023 HUES 07)

## ONDORIOA

Aurrez aipatutakoa jarraituz, Usurbilgo Udalak eta Eusko Trenbide Sarearen artean adostutako hitzarmenari buruzko ALDEKO hirigintza txostena idatzi da.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe. Udalari jakinarazten zaiona dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, sinadura datan  
Udal Arkitektoa



Usurbilgo Udala

2024/02/29

## **TXOSTEN JURIDIKOA**

Udal aholkulari juridikoak, ARAUDI S.L.P. taldeko Nekane Azarola Martinez abokatuak, lankidetzeta-hitzarmena aztertu ostean, 2023ko azaroaren 20ean ALDEKO txostena eman du. Hitzez hitz honela dio txostenak:

### **EUSKAL TENBIDE SAREA (ETS) ERAKUNDE PUBLIKOAREN ETA USURBILGO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEKO TXOSTEN JURIDIKOA**

#### **I.- AURREKARIAK**

Euskal Trenbide Sareak (ETS), bere eskumenen arabera, eta zerbitzua oro har eta bereziki Zarautz-Usurbil tartearen zatia hobetzeko, Aginagako tunelaren saihebidetaren proiektua idatzi du.

Usurbilgo Udala Altzonaz zubiaren titularra da, Txokoaldeko zubia bezala ezaguna dena. Zubi hori da Txokoalde auzora ibilgailuz eta oinezkoz iristeko pasabide nagusia, eta, gainera, Aginagako tunelaren saihebidetara garatu eta egiteko beharrezkoa den pasabidea.

Zubi horrek, gaur egun, ez ditu betetzen ETSren proiektua gauzatzeko behar diren baldintza teknikoak, eta, beraz, beharrezkoa da Txokoaldeko zubia birgaitzeko eta sendotzeko obrak egitea.

Gainera, ETSren proiektua gauzatzeko, bai obrak egiten diren bitartean, bai obrak amaitzen direnean eta trenbide-zerbitzuaren maiztasuna handitzen denean, Txokoaldeko bizilagunei eragiten die.

Ondorioz, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareak eta Usurbilgo Udalak hitzarmen bat adostu dute, batetik, Txokoaldeko zubia birgaitzeko eta sendotzeko baldintzak ezartzeko, eta, bestetik, proiektuak Txokoaldeko bizilagunengan izango duen eragina murrizteko neurriak zehazteko.

Honen bidez, hitzarmenari txosten juridikoa idazten da.

#### **II.- HITZARMENAREN IZAERA JURIDIKOA**

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian hirigintza-hitzarmenak arautzen dira, eta xedareen arabera, hitzarmenak honelakoak izan daitezke:

- a) Hirigintza-antolamenduari buruzko hitzarmenak: indarrean dagoen plangintzan egin daitezkeen aldaketan edukia zehazteko.
- b) Hirigintza egikaritzeko hitzarmenak: indarrean dagoen plangintza kudeatzeko eta egikaritzeko baldintzak ezartzeko hitzarmena sinatzen den unean.



Usurbilgo Udala

2024/02/29

Hitzarmen honek, ondorio guztietarako, izaera juridiko-administratiboa du. Bere xedea obra batzuk egiteko baldintzak arautzea da, ez hirigintza-plangintzan edo kudeaketa-tresnetan islatu behar diren alderdiak. Beraz, ez gaude hirigintza-hitzarmen baten aurrean, eta ez da aplikagarria Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen zazpigarren xedapen gehigarria.

Aplikagarriak dira sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikulua eta hurrengoak.

### **III.- HITZARMENAREN AZTERKETA JURIDIKOA**

#### **III.1.- INTERES PUBLIKOAREN JUSTIFIKAZIOA.**

Hitzarmenaren aurrekarietan jasotzen den bezala, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 197.2 artikulua aplikatuz, jabe pribatuek urbanizazio publikoak mantentzea aldi baterako da, eta ez da mugagabea.

Hitzarmena bi administrazio publikoren artean gauzatuko da, ondasun publiko bat (*Txokoaldeko zubia*) eraberritzeko eta Txokoalde auzoa trenbide-proiektuak eragin diezaiokeen inpaktuaz babesteko neurriak ezartzeko.

Beraz, proposatzen den hitzarmena interes publikoko arrazoigatik gauzatzen da.

Gainera, hitzarmen honek Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 26ko 40/2015 Legearen 48. artikuluan ezarritakoa beteko luke, honako hau xedatzen baitu:

*“3. La suscripción de convenios deberá mejorar la eficacia de la gestión pública, facilitar la utilización conjunta de medios y servicios públicos , contribuir a la realización de actividades de utilidad pública...”*

#### **III.2.- USURBILGO UDALAK BERE GAIN HARTUTAKO BETEBEHARREI DAGOKIENEZ**

Laugarren xedapenean Usurbilgo Udalak zenbait betebeharrak hartzen ditu bere gain. Laburbilduz, hauek dira betebeharrak:

- 1.-** Gider Ingenieros SLk egindako Txokoaldeko zubia birgaitzeko proiektuaren jabetza intelektualak ETSri lagatzea.
- 2.-** ETSk idatziko duen eraikuntza-proiektua onartzea, eta aipatutako proiektua eta gainerako dokumentuak idazteko behar den laguntza aktiboa ematea.
- 3.-** ETSren esku jartzea, kargarik gabe eta doan, udal-titulartasuneko lurzorua eta/edo hegalkinak obrak egiteko behar direnak.





4.- Hitzarmenaren xede diren jarduerak 300.000 eurotan finantzatzea.

5.- Obrak jaso ondoren, zubia mantentzeko eta kontserbatzeko konpromisoa hartzea.

Udalak bere gain hartutako konpromisoak bere eskumenaren barruan daude, eta konpromiso ekonomikoa bermatzeko, 4.f) klausulan jasotzen da ETSk kontratazio-espeditentia izapidetu aurretik, Udalak kreditu eta/edo funts egokien eta nahikoen erabilgarritasun- eta erreserba-ziurtagiria igorriko duela, hartutako finantza-konpromisoari aurre egiteko.

### **III.3.- RED FERROVIARIA VASCA-EUSKAL TRENBIDE SAREAK BERE GAIN HARTUTAKO BETEBEHARREI DAGOKIENEZ**

Hirugarren xedapenean, la “*Red ferroviaria vasca- euskal trenbide sareak*” bere gain hartzen ditu bere konpromisoak, eta laburbilduz, honako hauek dira:

1.- Txokoaldeko zubia birgaitzeko eta indartzeko proiektua idaztea, obrak lizitatzea, zuzentzea, gainbegiratzea eta teknikoki ikuskatzea.

2.- Usurbilgo Udalak emandako 300.000 €-tik gorako jarduera guztiak finantzatzea, eta gerta daitekeen hazkunde ekonomikoaren % 100ari aurre egitea.

3.- Obrak egin bitartean, zubia egoera onean edukitzea, eta sor daitezkeen kalte-galeren erantzukizuna bere gain hartzea.

4.- Txokoalde auzoaren gaineko eragina murrizteko jarduketei dagokienez: Aginagako tunela eraikitzeke proiektuan obraren sarbidea jasotzea, 1. eranskinean jasotzen den bezala, eta udalarekin lankidetzan, etorkizunean Txokoaldeko egungo trenbide-pasagunea kentzeko aukera teknikoak aztertzea.

Hitzarmenean bertan, erakunde horrek obrak egiteko dituen eskumenak, justifikatzen dira. 118/2006 Dekretuaren bidez “*Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari*” atxiki eta gomendiotan eman zaio lehendik zeuden trenbide-azpiegituren administrazioa, eta horien artean dago Bilbao-Donostia linea.

Euskal trenbide sareak (ETSk) 1.171.096,28 €ordaintzeko hasierako konpromisoa hartzen du (*BEZik gabe*). Azken kostua onartzen den proiektuaren aurrekontuaren eta lizitazioetik eta kontratuaren garapenetik eratorritako gorabehera ekonomikoaren ondoriozkoa izango da. Azken batean, zenbatekoa behin-behinekoa da.

### **III.4.- HITZARMENEN EDUKIARI DAGOKIONEZ**

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikulua hitzarmenaren eduki orokorra arautzen du.



Usurbilgo Udala

2024/02/29

Hitzarmenaren proposamena aztertu da, eta honako zehaztapen hauek betetzen ditu:

- a) Hitzarmena sinatzen duten subjektuak eta zein gaitasun juridikorekin jarduten duten ezartzen da.
- b) Udalaren eskumena alkatearena, beraz, alkatearen sinadura baino ez da behar.
- c) Lehenengo xedapenean xedea zehazten da. Hirugarren eta laugarren ataletan, alderdien betebeharrak.
- d) Hartutako betebeharrak ekonomikoari dagokienez. Usurbilgo Udalak 300.000 €-ko kopuru finkoa bere gain hartzen du. Zenbatekoaren erabilgarritasuna eta erreserba, baita ordaintzeko modua ere, laugarren estipulazioko 1.f) puntuan ezartzen dira.
- e) Hamargarren klausulan, hitzarmena azkentzeko arrazoiak arautzen dira, bai eta ez-betetzeen ondorioak ere. Kasu horretan, azkentzeaz gain, ez betetzeak **eragindako kalteak ordaindu beharko dira**.
- f) Horiek betetzeko zaintza- eta kontrol-mekanismoak dagokienez, zazpigarren klausulan jardueren jarraipen- eta koordinazio-batzordeak sorrera arautzen da.

Zehazki, bi batzorde: bata, Txokoaldeko zubia sendotzeko eta birgaitzeko obren jarraipena egitekoa, eta, bestea, Txokoalde auzorako trenbide-zerbitzuen inpaktua murriztekoa.

- g) Iraupenari dagokionez, Txokoaldeko zubia birgaitzeko obrak amaitu arte iraungo du. Bederatzigarren estipulazioan jasotzen da inola ere ezin izango duela gairitu 4 urteko indarraldia, 1. Artikuluko 1. 40/2015 legea betez. Hala ere, beste 4 urtez luzatu ahal izango da, lehenengo lau urteak amaitu baino lehen aho batez hala erabakitzen bada.

Ondorioz, hitzarmenak aipatutako 48. artikuluan ezarritakoa betetzen du.

Azkenik, kontuan hartuta “*Red Ferroviaria-Euskal Trenbide Sareak*” hartutako konpromisoak 600.000 €-tik gorakoak direla, 40/2015 Legearen 53. artikuluan ezarritakoaren arabera, hitzarmena Kontuen Euskal Epaitegira bidali beharko da.

Betebeharrak hori hitzarmenaren hamargarren klausulan islatu da.

#### IV.- ONARTZEKO PROZEDURA

Kontuan hartuta hitzarmena ez dela hirigintzakoa, ez da 2/2006 Legean araututako prozedura aplikatu behar, eta, beraz, ez da beharrezkoa jendaurrean jartzea.



Usurbilgo Udala

2024/02/29

Azaldutako guztiagatik, ALDEKO TXOSTENA ematen zaio “Red Ferroviaria Vasca- Euskal Trenbide Sarea” eta Usurbilgo udalaren arteko hitzarmenaren testuari, Alkateak onartzeko eta sinatzeko.

Usurbilen, 2023ko azaroaren 20a  
Nekane Azarola Martínez. Araudi SLP  
Udal aholkulari juridikoa

## LEGE TXOSTENA

Udal idazkariak berriz, Xabin Juaristi Arrieta jaunak, 2023ko azaroaren 24an, honako txostena eman du dokumentua aztertu ostean:

Esp. Zenbakia: 2023HITZ0007

### LEGE-TXOSTENA

**Gaia: TXOKOALDEKO ZUBIA BIRGAITU ETA SENDOTZEKO, ETA AGINAGAKO TUNELAREN OBRAK TXOKOALDE AUZOAN IZANGO DITUEN ERAGINAK MURRIZTEKO NEURRIAK HARTZEKO EUSKAL TENBIDESAREA (ETS) ERAKUNDE PUBLIKOAREN ETA USURBILGO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA.**

#### 1.- AURREKARIAK

- Urteak igaro ahala Txokoaldeko zubiaren egoera, zubiaren egiturak dituen arazoak tarteko, euste-ahalmena 12 tonaraino murriztu eta zubiaren erdiko ardatzetik kanpo ez zirkulatzea gomendatu zen, zubia egoera txarrean dagoelako. Karga horiek baino handiagoko ibilgailuek zubia erabili ahal izateko, ezinbestean zubia modu esanguratsuan indartu beharko da.

- Egun, ETS-k Aginagako tunela eraikitze beharrezkoa da Txokoaldeko zubia birgaitzeko eta sendotzeko obrak egitea. Aipatu behar da, aurrez, Usurbilgo Udalak egin dituela saiakerak zubia berreraikitze; horren erakuslea da, 2018an “Txokoaldeko zubiaren birgaitze proiektua” enkargatu ziola Girder ingeniariari.

Ondorioz, behar amankomun horri erantzuteko, 2018ko proiektuaren berrikuspenean ETS-k eta Usurbilgo Udalak elkarlanean egin dute, Udalak proposatutako zuzenketa edo hobekuntzak kontuan izanik.

- 2023ko azaroan ETS-ko ordezkariak Usurbilgo Udalarekin adostutako hitzarmenaren zirriborro proposamena aurkeztu dute.

- Hirigintzako arduraduna den Udal arkitektoak, Nora Erdozia Ibañez andereak, hitzamina aztertuz, 2023ko azaroaren 17an, aldeko txostena ematen du.



Usurbilgo Udala

2024/02/29

Bestalde, hirigintzako aholkulari juridikoak, Araudi SLPko Nekane Azarola Martínezek 2023ko azaroaren 20an emandako aldeko txosten juridikoan jasotzen da azterketa juridikoa; zehazki, hitzarmena sinatzeko interes publikoaren justifikazioa, Udalak bere gain hartutako betebeharrei dagokien atala, ETS-k hartutakoei dagokiena, eta Sektore publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen baitan hitzarmenaren edukiei buruzko gogoeta aztertu dira. Idazkari honek ADOSTASUN OHARRA ematen dio aipatu txostenari.

## **2.- HITZARMENA**

Hitzarmen honen helburua obra batzuk egiteko baldintzak arautzea da, ez hirigintza-plangintzan edo kudeaketa-tresnetan islatu behar diren alderdiak. Beraz, ez gaude hirigintza-hitzarmen baten aurrean, eta ez da aplikagarria

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen zazpigarren xedapen gehigarria.

Aplikagarriak dira sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengoak.

## **3.- IZAPIDEA**

Izapideari dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 50.1 artikulua eskatzen du hitzarmenari nahitaez justifikazio-memoria bat erantsi behar zaiola, haren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz kanpoko izaera eta lege horretan aurreikusitakoa betetzen dela aztertzeko.

Bestalde, hitzarmen-proposamenak udal-kontu-hartzaitzaren txostena beharko du, udal honi betebeharrak ekonomikoak badakarzkio. Horretarako, udal- aurrekontuan jaso beharko dira dagokion gastuari aurre egiteko behar diren aurrekontu-zuzkidurak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 86. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, administrazio bakoitzari aplikatu beharreko arauak zehazten dute lankidetzaren hitzarmenak egiteko eskumena, eta, toki-administrazioaren esparruan, alkateari edo Udalbatzarrari dagokio, kasuan kasuko eskumeneko gaiei dagokienez.

Kasu honetan, eskumenen eskuordetze edo kudeaketa-gomendio batekin pareka daitekeen kasurik ez dago, 4 urteko iraupena ere ez du gainditzen, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.s) artikulua arabera, organo eskuduna alkatetza dela defenda daiteke.

Baina, hitzarmen honek 3 urtetarako gastua konprometitzen du, eta toki erakundearen aurrekontu arauen arabera, gastu baten urte-anitzeko izaera onartzea Udalbatzarrari dagokio.

Haatik, aurrekontu arauak ez dute aldatzen alkatearen eta Udalbatzarraren arteko eskumen-banaketaren araubidea, eta, beraz, alkateak mantenduko



Usurbilgo Udala

2024/02/29

luke hitzarmena onartzeko eskumena. Baina, aldiz, hitzarmenak barne biltzen duen urte-anitzeko gastua aurrez baimentzea, Udalbatzarraren eskumena da.

Ondorioz, idazkari honen iritziz, eraginkortasun eta efizientzia printzipioak ezartzea komenigarria da; alegia, Udalbatzarrak gastua baimendu behar duenez, oso bilkura bera aprobetxatzea hitzarmena ere onartzeko.

Alderdiek adostasuna emanez burutzen dira hitzarmenak. dagokion lankidetzaren eta hitzarmenen erregistro elektronikoa inskribatu behar dira (40/2015 Legeko 144.3 art.). Aldez aurretik, eta aukeran, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ahal izango dira.

Zentzu horretan, dagokion udal-organoak hartutako erabakia esku hartzen duen administrazioari jakinaraziko dio, sinatu dezan, ezarritako epean.

Azkenik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 53.1 artikularekin bat etorritik, 600.000 eurotik gorako konpromiso ekonomikoak dituen edozein hitzarmen sinatu eta hurrengo hiru hilabeteen barruan, Kontuen Auzitegiari elektronikoki bidali beharko zaio.

Hauxe da sinatzen duen idazkariaren iritzia, zuzenbidean hobeto oinarritutako beste irizpideren baten kalterik gabe.

Usurbilen, sinadura datan.  
Udal idazkariak

## JUSTIFIKAZIO MEMORIA

Udal arkitektoak, Nora Erdozia Ibañez andereak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 50.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, 2023ko azaroaren 28an honako justifikazio-memoria eman du:

### JUSTIFIKAZIO MEMORIA

Alkatetzak ETS (Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea) erakundearekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatzeko espedientea hasteko agindua eman zuen TXOKOALDEKO ZUBIA BIRGAITU ETA SENDOTZEKO, ETA AGINAGAKO TUNELAREN OBRAK TXOKOALDE AUZOAN IZANGO DITUEN ERAGINAK MURRIZTEKO NEURRIAK HARTZEKO helburuarekin, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen (SPAJL) 47. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Horretarako, hitzarmen hori egiteko justifikazio-memoria hau egiten da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 50.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik:

**LEHENENGOA.** Hitzarmenaren xedea:

1.- Txokoaldeko zubia, udal-titulartasuneko, birgaitzeko eta sendotzeko baldintzak ezartzea, zirkulaziorako erabat egokia eta segurua izan dadin; bereziki,



Usurbilgo Udala

2024/02/29

erakusketan aipatzen den ETS eraikitzekeo proiektuak behar duen zirkulazio partikularrari dagokionez. Zubi horrek eragiten die gutxien erabiltzaileei eta inguruko bizilagunei lanak egin behar diren lekura iristeko orduan.

2.- Txokoalde auzoan ETS-k egingo dituen Aginagako tunelaren obren inpaktua murrizteko neurriak eta, obrak amaitutakoan eta maiztasuna handituta, trenbide-zerbitzuak izango duten eragina murrizteko baldintzak ezartzea; zehazki Txokoaldeko trenbide-pasaguneari dagozkionak.

Era berean, hitzarmen honen xedea da "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea" eta Usurbilgo Udalak aurrez deskribatutako helburuak betetzeko beharrezkoak diren esku-hartzeak eta jarduketak bultzatzeko, finantzatzeko eta gauzatzeko adostutako baldintzak arautzea.

**BIGARRENA.** Hitzarmenaren beharra eta komenigarritasuna:

"Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea (ETS)" Ente Publikoak, lehendik zeuden trenbide-azpiegiturak eta hala agintzen zaizkionak eraiki, kontserbatu, kudeatu eta administratzeko eratu zen 2004 urtean. Bere helburua betetzeko, 118/2006 Dekretuaren bidez "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari" atxiki eta gomendiotan eman zitzaion lehendik zeuden trenbide-azpiegituren administrazioa, eta horien artean dago Bilbao-Donostia línea.

ETS-k, bere eskumenen arabera, Aginagako tunelaren saihebidetaren proiektua idatzi du tren zerbitzua oro har hobetzeko, bereziki Zarautz-Usurbil tartetaren zatia.

ETS-k Aginagako tunelaren proiektuak jasotako lanak eraikitzekeo beharrezkoa da Txokoaldeko zubia birgaitzeko eta sendotzeko obrak egitea, Txokoaldeko zubiaren egiturak dituen arazoak tarteko. Gaur egun, zubiaren euste-ahalmena 12 tonaraino murriztua dago eta karga horiek baino handiagoko ibilgailuek zubia erabili ahal izateko, ezinbestean zubia modu esanguratsuan indartu behar da.

Usurbilgo Udala Txokoaldeko zubiaren (Altzonaz zubia) titularra da eta azken urteetan eginak ditu zubia berreraikitzekeo saiakerak; horren erakuslea da, 2018an "Txokoaldeko zubiaren birgaitze proiektua" enkargatu ziola Girder ingeniariari.

Ondorioz, behar amankomun horri erantzutekeo, Txokoaldeko zubia birgaitu eta sendotzeko lanak egitekeo beharra eta/edo komenigarritasuna ikusi da eta 2018ko proiektuaren berrikuspena ETS-k eta Usurbilgo Udalak elkarlanean egin dute, Udalak proposatutako zuzenketa edo hobekuntzak kontuan izanik.

Bestalde, Aginagako tunelaren obrak tren zerbitzua indartzeko eta haren segurtasuna hobetzeko garrantzi handiko proiektua bada ere, 15 minutuko frekuentzia lortuz trenaren maiztasuna areagotzeak ezinbestean eragin zuzena izango du Txokoalde auzoak. Batetik, obra egiten ari diren bitartean honek ekarriko dituen eragozpen guztiak. Bestetik, kontutan izanda proiektuak Txokoaldeko trenbide gaineko pasaguneak bere horretan mantentzen dituela eta maiztasuna



Usurbilgo Udala

2024/02/29

areagotuko dela, trenarengatik igarobideak itxita egongo diren tarreak luzatu egingo dira (2 norantzetan, 15 minuturo, eta trena igaro aurretik eta ondoren itxita egongo da).

Hortaz, proiektuak Txokoaldeko pasagunearen arazoa areagotuko duela jakinda, egoera aintzat hartu, ETS-k eta Usurbilgo Udalak beharrezko jo dute Txokoaldeko trenbide pasagunea kentzeko edo horren erabilera baldintzak hobetzeko aukerak aztertzea, tunelak Txokoalden sortuko dituen afekzioak murrizteko helburuz.

Aipatutakoak aintzat hartuta, "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea" Erakunde Publikoak eta Usurbilgo Udalak, batetik TXOKOALDEKO ZUBIA BIRGAITU ETA SENDOTZEKO BALDINTZAK EZARTZEKO, eta bestetik, AGINAGAKO TUNELAREN OBRAK TXOKOALDE AUZOAN IZANGO DITUEN ERAGINAK MURRIZTEKO NEURRIAK HARTZEKO beharrezko jo da lankidetzaz hitzarmen bat adostu eta sinatzea.

**HIRUGARRENA.** Ekonomian izango duen eragina:

Usurbilgo Udalak bere gain hartutako betebeharrak ekonomikoei dagokionez, hitzarmenaren xede diren jarduerak 300.000 eurotan finantzatzeko konpromisoa hartu du; zehazki Txokoaldeko zubia birgaitu eta sendotzeko jarduerak finantzatzeko. Proiektuaren osoaren aurrekontua 1.417.026,50 eurokoa da (%21eko BEZ barne).

300.000 euroko kopurua ordaintzeko modua honakoa izango da: 100.000 €, Udalarik obraren esleipena jakinarazten dionetik hilabeteko epean. 100.000 € lehen ordainketa egin eta hurrengo urtean. Azken 100.000 euroak, bigarren ordainketa egin eta hurrengo urtean.

**LAUGARRENA.** Lankidetzaz hitzarmenaren bidez gauzatu den jarduerak kontratuzko izaera ez duela zuzitza.

Sektore Publikoaren Araubideari buruzko 40/2015 Legeak ezartzen duen bezala, hitzarmenek ezin izango dute helburutzat izan kontratuen berezko prestazioak. Kasu horretan, haien izaera eta araubide juridikoa sektore publikoko kontratuei buruzko legerian ezarritakoari lotuko zaizkio.

Kasu honetan, hitzarmenaren helburua Usurbilgo Udalak eta "Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea" erakunde publikoak Txokoaldeko zubia birgaitu eta sendotzeko baldintzak ezartzea eta Aginagako tunelaren obrak Txokoalde auzoan izango dituen eraginak murrizteko neurriak hartzea da.

Aipatutako Txokoaldeko zubia birgaitu eta sendotzeko obraren lizitazioa eta kontratazioa "Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea" erakunde publikoak egingo du, aplikatzeko den legeriaren arabera.

**BOSGARRENA.** Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.etik 53.era bitarteko artikuluetan xedatutakoa betetzen dela zuzitza.



Usurbilgo Udala

2024/02/29

Hirigintzako aholkulari juridikoak, Araudi SLPko Nekane Azarola Martínezek 2023ko azaroaren 20an emandako ALDEKO txosten juridikoan jasotzen da azterketa juridikoa; zehazki, hitzarmena sinatzeko interes publikoaren justifikazioa, Udalak bere gain hartutako betebeharreri dagokien atala, ETS-k hartutakoei dagokiena, eta Sektore publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen baitan hitzarmenaren edukiei buruzko gogoeta aztertu dira.

Txostenean besteak beste honakoak aipatzen dira:

- *Hitzarmenak, ondorio guztietarako, izaera juridiko-administratiboa du. Bere xedea obra batzuk egiteko baldintzak arautzea da, ez hirigintza-plangintzan edo kudeaketa-tresnetan islatu behar diren alderdiak. Beraz, ez gaude hirigintza-hitzarmen baten aurrean, eta ez da aplikagarria Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen zazpigarren xedapen gehigarria.  
Aplikagarriak dira sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikulua eta hurrengoak.*
- *Interes publikoari dagokionez, hitzarmenak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikuluan ezarritakoa beteko luke, honako hau xedatzen baitu:  
“3. La suscripción de convenios deberá mejorar la eficacia de la gestión pública, facilitar la utilización conjunta de medios y servicios públicos , contribuir a la realización de actividades de utilidad pública...”*
- *Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikulua hitzarmenaren eduki orokorra arautzen du. Hitzarmenaren proposamena aztertu da. (...) Ondorioz, hitzarmenak aipatutako 48. artikuluan ezarritakoa betetzen du.*
- *Azkenik, kontuan hartuta “Red Ferroviaria-Euskal Trenbide Sareak” hartutako konpromisoak 600.000 €-tik gorakoak direla, 40/2015 Legearen 53. artikuluan ezarritakoaren arabera, hitzarmena Kontuen Euskal Epaitegira bidali beharko da. Betebehar hori hitzarmenaren hamargarren klausulan islatu da.*

Halaber, Usurbilgo Udaleko Udal Idazkariak aipatu txosten juridikoari adostasun oharra eman dio.

Azaldutako guztiagatik, hitzarmenak Sektore Publikoaren Araubideari buruzko 40/2015 Legean VI. Kapituluari hitzarmenei buruz xedatutakoa betetzen duela ondoriozta daiteke.

Usurbilen, sinadura datan  
Hirigintza, obrak eta ingurumena saileko burua / Udal arkitektoa

## KONTUHARTZAILETZAREN TXOSTENA

Udal kontuhartzaileak, Gorka Lizarraga Erro jaunak, 2024ko otsailaren 5ean, aldeko txostena eman du. Hitzez hitz honela dio:





Usurbilgo Udala

2024/02/29

## ONARRIZKO BETEKIZUNEN AURRETIAZKO FISKALIZAZIO ETA/EDO KONTU-HARTZE MUGATUAREN TXOSTENA

1	
TXOSTENA	2024EKON0001
ESPEDIENTEAREN IDENTIFIKAZIOA	2023HITZ007
ESPEDIENTE MOTA	Hitzarmena
EXEKUZIO FASEA	Gastuaren Baimentzea eta aurreko kreditu izatearen ziurtagiria luzatzea
ZENBATEKOA	300.000 euro
AURREKONTU APLIKAZIOA	6000.712.459.00.01 (2024) eta etorkizuneko 6000.712.459.00.01 (2025) eta (2026)
ORGANO KUDEATZAILEA	Hirigintza

### ONARRI JURIDIKOAK

- 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoa, bere IV TITULUA: KONTUHARTZE-KONTROLA.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko 32/2018 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena.
- 2023/12/20 datako toki erakundearen osoko bilkuraren erabakia, aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuko araubidea eta espedienteetan egiaztatu beharreko baldintzak onartzen dituena.

### JAKINARAZTEN DUT

Adierazitako araudian xedatutakoa kontuan hartuz eta espedienteko dokumentazioa ikusita, espedientearen izaerari dagozkion oinarrizko baldintzak fiskalizatu dira, eta fiskalizazioaren emaitzak txosten honen eranskinean jaso dira: baldintzak betetzat eman direnean, BAI adierazi da azkeneko zutabea; baldintzak espedienteari ez zaizkiola aplikatu behar

### FISKALIZAZIO TXOSTENAREN ONDORIOAK

Prozeduraren fase honetan, erreferentziako espedientea fiskalizatzen da honako emaitza honekin, lehen deskribatutako moduan eta baldintzetan:

### ALDEKOA



Usurbilgo Udala

2024/02/29

Era berean, aipatutako araudiak Kontu-hartzaitza honi ematen dion ahalmenarekin bat etorri, honako ohar hauek egiten dira, eta horiek ez dute inola ere etete-ondoriorik izango espedientearen izapidetzean:

Kontu-hartzailea

### ERANSKINA

3.4	Zuzenbide		
3.4.1	Hitzarmena onartzea edo aldatzea (AD fasea)		BAI/EZ/ EZ DAGOKIO
A.	Leg. Erref.	Oinarrizko baldintza orokorrak	
A.1 ERAGOZ- PEN ETE- NERAZ- LEA	TEAFA 19.3 art. AEFD 3.5 <sup>4</sup> BKFD 13.2 a) art. LGS art. 9.4.b)	Aurrekontu-kreditua egotea; proposatu- tako kreditua egokia izatea kontuan hartuta proposatzen den gastuaren izaera, eta espedienteari eranstea kredi- tua dagoenaren ziurtagiria edo an- tzeko agiri bat.	Bai
A.2 ERAGOZ- PEN ETE- NERAZ- LEA	BKFD 13.2 a) art. TEAFA 22 art.	Urte anitzeko gastu konpromisoak hartu behar badira, 21/2003 Foru Arauaren 22. artikuluan xedatutakoa betetzen dela.	Bai
A.4 ERAGOZ- PEN ETE- NERAZ- LEA	BKFD 13.2 a) art. DLE 56 art.	Finantzaketa lotu gabeko gastuen aurre- tiazko izapidetzea bada, baldintza etena- razle hau sartzea: gastua baimendu ahal izateko, kreditua egotea gastua egin beharreko ekitaldian.	Bai
A.5 ERAGOZ- PEN ETE- NERAZ- LEA	BKFD 13.2 b) art. DLO 9.4.a), 17.3 g) art. TEAFA 41 art.	Gastua organo eskudunak sortzen duela. UDALBATZA	Bai
B.	Leg. Erref.	Oinarrizko baldintza gehigarriak	BAI/EZ/ EZ DAGOKIO
B.1 ERAGOZPEN EZ ETENARAZLEA	SPAJL 47, 50 art. AJAED 172 art.	Gutxienez, hitzarmenak xede duen jardue- raren beharrezkoa eta aukera, eragin ekonomikoa eta kontratuz kanpoko izaera aztertzen duen txostena izatea.	Bai
B.2 ERAGOZPEN EZ ETENARAZLEA	AJAED 172, 175 art. SPAJL 50 art.	Organo kudeatzaileak aldeko txostena ematea.	Bai
B.3 ERAGOZPEN EZ ETENARAZLEA	SPAJL 49 art.	Hitzarmenak lau urtetik gorako iraupenik ez izatea.	Bai
B.4 ERAGOZPEN EZ ETENARAZLEA	SPAJL 49.f) art.	Hitzarmenean jarraipen, zaintza eta kon- trollerako mekanismo bat jasotzen da, hitzarmenaren betearazpenari eta si- natzaileek beren gain hartutako konpromi- soei aplikatzekoa.	Bai

Guzti hau ikusirik, Lurraldea Batzordeak, 2024ko otsailaren 20ean egindako bilkuran, Ainhoa Arrozpide, Xabier Aranburu, Iratxe Begiristain, Xabier Aranburu, Xabier Otxoa eta Petra Romeroren aldeko botoekin egindako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

2024/02/29

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** Txokoaldeko Altzonaz zubia birgaitu eta sendotzeko, eta Aginagako tunelaren obrak Txokoaldeko auzoan izango dituen eraginak murrizteko neurriak hartzeko helburuarekin ETS (Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea) eta Usurbilgo Udalaren arteko LANKIDETZA-HITZARMENA, espedientean jasotakoa, onartzea.

**BIGARRENA:** Alkateari ahalmena ematea Usurbilgo Udalaren izenean aipatutako Lankidetzaren Hitzarmena izenpetzeko.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

### **7.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO ONDARE KATALOGOAREN ALDAKETA PUNTUALA, ONDARE ETNOGRAFIKOKO ELEMENTUEN ARTEAN JASOTAKO "ORBELDI PRESA ETA INDARRETxea (RUINA)" DESKATALOGATZEKO ALDAKETA PUNTUALA (05 ALDAKETA). HASIERAKO ONARPENA (2024HBES0004).**

Batzarkideek Lurraldearen batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

#### **"AURREKARIAK**

Diputatuen Kontseiluak, 2011ko irailaren 6an egindako bilkuran, "*Usurbilgo Plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina*" onartzea erabaki zuen. Onarpen akordioak ezarritakoa betez, dokumentua zuzendu eta Usurbilgo Udal Batzarrak onartu ondoren Foru Aldundiak aldeko iritzia eman eta "*Usurbilgo Plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina*"ren araudia 2013ko irailaren 10eko GAOn argitaratu zen, 172. zenbakian.

Agiri honetan, zehazki bosgarren tituluan, katalogatutako hirigintza-ondarearen babes arauak jasotzen dira (68, 69 eta 70. artikulua). Ondare katalogoak "*Orbeldiko presa eta indarretxea (ruina)*" Ondare Etnografiko bezala sailkatzen du.

2019ko abenduaren 17an, Gipuzkoako Piraguismo Federazioak, "*Orbeldin ur biziarentzako kanala ezartzeko Lurzoru urbanizaezineko Plan Berezia*" eta planaren



Usurbilgo Udala

2024/02/29

Ingurumen Txosten Estrategikoa aurkeztu zituen Udalean. Plan berezi honen helburua Orbeldi inguruan, urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruan, ur biziaren kanal bat ezartzea zen.

Usurbilgo Udalak 2020ko abenduaren 18ko 957/2020 Alkate Dekretu bidez Orbeldin ur biziarentzako kanala ezartzeko Plan Berezia hasieraz onartu zuen, Ingurumen Administrazioaren Zuzendariak, 2020ko uztailaren 29an emandako Ingurumen-txosten estrategikoko zehaztapenarekin.

2021eko otsailaren 4an, “*Orbeldin ur biziarentzako kanala ezartzeko Lurzoru urbanizaezineko Plan Berezia*” jendaurrean jarri zen eta jendaurreko epean ez zen alegaziorik jaso.

Plan Bereziaren xedea Orbeldin ibaiari lotutako kirol ekipamendu bat ezartzeko hirigintza parametroak zehaztea eta Orbeldiko presa inguruko ingurumen-hobekuntza da.

Plan Bereziak kanalaren gainean kokatzen den zentralaren edo indarretxearen aurriak kentzea eta kanala zena kirol erabilerarako egokitzea proposatzen du, bertan ur-biziko kanal bat sortuz. Zentralaren aurriak kanalaren gainean kokatzen direnez, ez dira bateragarriak aurrien mantentzea eta kanala kirol erabilerarako birmoldatzea. Horregatik, kirol ekipamenduak behar dituen zerbitzuak (ontzien biltegia, aldagelak, komunak, harrera etab) kanaletik kanpo kokatuko den zerbitzu-erakin berri baten egitea proposatzen dira.

2021eko apirilaren 9an Eusko Jaurlaritzako EAeko Lurralde Antolamendurako Batzordera bidali zen lurzoru urbanizaezineko Plan Berezia tramitatzeako espedientea eta txostena eskatu zitzaion.

EAeko Lurralde Antolamendurako Batzordeak ALDEKO txostena eman zuen. Hartutako erabakiaren jakinarazpenarekin batera, besteren artean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak emandako txostena igorri zuen, zeinak gomendio izaerarekin honako ohartarazpena egiten zuen: *Udalaren hirigintza-araudian babestutako ondasunak eraistea ez da onartuko beren katalogotik kanpo geratzen ez diren bitartean.*

2023ko abuztuaren 24an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako zuzendari nagusiak INTERES PUBLIKOTZAT jo zuen Orbeldin ur biziarentzako kanala ezartzeko jarduerari (2023ko irailaren 1eko GAO, 169. zenbakia),

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren txostenean egindako ohartarazpena kontutan hartuta, Usurbilgo Udalak Orbeldiko presa eta indarretxearen balio kultural eta etnografikoa identifikatzeko txostena eskatu zion Aranzadi Zientzia Elkarteari, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 60 eta 100.1 artikulua aplikatuz Ondare Katalogoa aldatzeko izapidetzea abiatu du.

## **ONDARE KATALOGOA ALDAKETA PUNTUALERAKO DOKUMENTUA**



Usurbilgo Udala

2024/02/29

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Ondare Katalogoaren Aldaketa Puntualaren dokumentua udal arkitektoak, Nora Erdozia Ibañez andereak, eta udal aholkulari juridikoak, ARAUDI S.L.P. taldeko Nekane Azarola Martinez andereak idatzi dute.

### **ALDAKETAREN XEDEA**

Usurbilgo Arau Subsidiarioen aldaketa honen helburua Ondare Katalogoaren aldaketa puntuala bultzatzea da.

Bosgarren tituluan, "*Katalogatutako hirigintza-ondarea babesteko arauak*" izenekoan, Usurbilgo udalerriko ondasunen katalogoa arautzen da, eta 69. artikuluan babes-araubide desberdinak ezartzen dira. Artikulu honen III. atalak babestutako "*Ondare etnografikoko*" elementuak jasotzen ditu, eta horien artean dago "***Orbeldiko presa eta indarretxea (ruina)***".

Katalogo honen aldaketaren xedea ONDARE ETNOGRAFIKOKO elementuen artean jasotako "***Orbeldiko presa eta indarretxea (ruina)***" deskatalogatzea da.

### **ALDAKETA PUNTUALAREN XEHETASUNAK**

Arau Subsidiarioetako Araudiko bosgarren tituluko –hirigintzazko ondare katalogatuaren babespen arauak– 69. artikulua honela aldatuko da:

INDARREAN DAGOEN TESTUA	ALDAKETA OSTEKO IDAZKETA
<p style="text-align: center;"><b>BOSGARREN TITULUA</b></p> <p style="text-align: center;">HIRIGINTZAZKO ONDARE KATALOGATUAREN BABESPEN ARAUAK</p> <p><i>69. artikulua. – Babes-araubidea</i></p> <p>Izaera orokorrarekin katalogatutako elementuak ezingo dira interbentzio errausle edo degradatzaileen gai izan, hori bai katalogatutako elementuen izaera alferrik galduko luketen baliorik gabeko eranskinak ezabatzeko zuzendurikoak onartuak izan daitezke.</p> <p>Ondoko sailkapena ezartzen da:</p> <p>(...)</p> <p><b>III.- Ondare etnografikoa</b></p>	<p style="text-align: center;"><b>BOSGARREN TITULUA</b></p> <p style="text-align: center;">HIRIGINTZAZKO ONDARE KATALOGATUAREN BABESPEN ARAUAK</p> <p><i>69. artikulua. – Babes-araubidea</i></p> <p>Izaera orokorrarekin katalogatutako elementuak ezingo dira interbentzio errausle edo degradatzaileen gai izan, hori bai katalogatutako elementuen izaera alferrik galduko luketen baliorik gabeko eranskinak ezabatzeko zuzendurikoak onartuak izan daitezke.</p> <p>Ondoko sailkapena ezartzen da:</p> <p>(...)</p> <p><b>III.- Ondare etnografikoa</b></p>



Usurbilgo Udala

2024/02/29

(...)

**Urdaiaga:**

Andatzako gurutzea  
Armiamategiko harrobiak  
Erroizpeko presa  
Erroizpeko zetaola  
Errotaberri (presa eta kanala)  
Igartzabalgo mugarria  
Illunbeko mugarria  
Isostegiko alaunea  
Juanasoroko mugarria  
Mugarriluzeko mugarria  
**Orbeldiko presa eta indarretxea (Ruina)**  
Puelaberriko mugarria  
Txanka eta Goikoerrotako antepara  
Txokoaldeko indarretxea (Akerrenea),  
bere ubide eta tuberiarekin.  
Txokoaldeko portu zaharra  
Txokoaldeko pilotalekua  
(...)

(...)

**Urdaiaga:**

Andatzako gurutzea  
Armiamategiko harrobiak  
Erroizpeko presa  
Erroizpeko zetaola  
Errotaberri (presa eta kanala)  
Igartzabalgo mugarria  
Illunbeko mugarria  
Isostegiko alaunea  
Juanasoroko mugarria  
Mugarriluzeko mugarria  
Puelaberriko mugarria  
Txanka eta Goikoerrotako antepara  
Txokoaldeko indarretxea (Akerrenea),  
bere ubide eta tuberiarekin.  
Txokoaldeko portu zaharra  
Txokoaldeko pilotalekua  
(...)

**LEGE TXOSTENA**

Udal Idazkariak, Xabin Juaristi Arrieta jaunak, 2024ko otsailaren 13an dagokion lege-txostena eman du. Hitzez hitz honela dio:

Esp. Zenbakia: 2024HBES0004

**LEGE-TXOSTENA**

Gaia: **USURBILGO ARAU SUBSIDIARIOETAKO KULTUR ONDARE KATALOGOAREN ALDAKETA PUNTUALA.**

Hirigintza sailak idazkari honi helarazitako espedientea aztertu ostean, bertan jasotako arau aldaketa puntualaren txostena aztertu da.

Kontuan izanda martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak –gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioen Funtzionarioen erregimen juridikoa arautzen duenak– bere 3. artikulua 3.d.7. eta 4. ataletan xedatua duela nahitaezko lege aholkularitzaren eginkizuna dela, besteak beste, dagokion txostena egitea hirigintza-plangintzako eta hirigintza-kudeaketako hitzarmenak eta tresnak onartzean, aldatzean edo indargabetzean, eta txosten hori egitea izan daitekeela adostasun oharra egitea Udaleko bertako



Usurbilgo Udala

2024/02/29

zerbitzuek egindako eta espedientean txosten juridiko gisa agertzen diren txostenekiko.

Ikusita, Nora Erdozia Udal arkitektoak eta Nekane Azarola hirigintzako aholkulari juridikoak 2024ko urtarrilean emandako txosten juridikoan jasotzen dela azterketa juridikoa eta jarraitu beharreko prozedura. Idazkari honek ADOSTASUN OHARRA ematen dio aipatu txostenari.

Hauxe da sinatzen duen idazkariaren iritzia, zuzenbidean hobeto oinarritutako beste irizpideren baten kalterik gabe.

Usurbilen, sinadura datan.  
Udal idazkariak

Guzti hau ikusirik, Lurraldea Batzordeak, 2024ko otsailaren 20ean egindako bilkuran, Ainhoa Arrozpide, Xabier Aranburu, Iratxe Begiristain, Xabier Aranburu, Xabier Otxoa eta Petra Romeroren aldeko botoekin, aho batez, egindako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENENGO:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Ondare Katalogoaren Aldaketa Puntuala (05 aldaketa) hasieraz onartzea, ondare etnografikoko elementuen artean jasotako "*Orbeldi presa eta indarretxea (ruina)*" deskatalogatzeko xedearekin.

**BIGARRENA:** Onartutako dokumentazioa jendaurrean jartzea hogeita hamar eguneko epean, iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz, interesatuek hala baderitzote dagokien erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ditzaten.

**HIRUGARRENA:** Jendaurreko informaziorako epean, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailei txostena eskatzea."

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

**8.- TAXI ZERBITZUAREN 2024KO HIRI TARIFAK ONARTZEA (HZ.06/2024-0063).**



Usurbilgo Udala

2024/02/29

Batzarkideek, Lurraldea batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

### “Aurrekariak

2002 urtean, Eusko Jaurlaritzak, Taxien legea, "bidaiariak herri barruan" eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen 2/2000ko legea, onartu zuen. Lege hau hartuta "BURUNTZALDEA ERREGIMEN BEREZIKO GUNEA" sortu zen, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil udalerriekin, *(Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako departamentuko diputatuak agindutako, 2007ko maiatzaren 29ko Foru aginduan eta 2007ko ekainaren 11ko G.A.O. 114 zenbakian argitaratua).*

2/2000 legea garatzen duen erregelamenduko 57. artikulua eta hurrengoak diotenez, kotxe bidez garraio zerbitzua ematea, tarifa bati lotuta egongo da eta eskumena duen organoak aldiro errebisatu eta onartu beharko du. Tarifa hori, loteslea eta derrigorrezkoa izango da, bai hiriko bai hiriarteko ibilbideetan.

Era berean, garraiorako tarifak arlo guztiekin batera onartuko direla adostu da. Tarifetan ekoizpen eta antolaketa egoera normal bateko, benetako kostu guztiak, sartu beharko dira: batetik amortizazio egoki bat egiteko eta enpresarentzako arrazoizko mozkinak emateko eta bestetik, zerbitzua edo jarduera egokia emateko. Horregatik udalerririk horietan, tarifaren berrikuspena egin beharko da, era bereko tarifa mantentzeko.

Bestalde, tarifak urtero berrikusten dira, horretarako kostuen egituraren osagaietan izandako gorabeherak kontutan hartuz, hau da, jardunaren oreka ekonomikoan eragin izan duten gorabeherak.

### Ikusirik

Laster Oarsoaldea eta Buruntzaldea eskualdeen eta Donostia-San Sebastián udalerrien artean taxiaren Erregimen Bereziko Eremua eratuko denez, beharrezkoa da hiri-garraioko zerbitzuaren tarifak bateratzea.

Horretarako, etorkizuneko Erregimen Bereziko Eremuak eragina izango duen taxi-sektoreko kideen adostasun osoarekin, bateratze hori Donostiako tarifa-araubidearen babesean eskatzen da. Hori dela eta, Donostiako tarifa-erregimenaren esparruan dagoen 5. tarifa eskualdeko gainerako udalerrietara zabalduko da.

Buruntzaldea eskualdean 2023ko ekitaldian aplikatu beharreko tarifa-araubidea taula honetan jasotakoa da:

INDARREAN DAGOEN HIRI TARIFA 2023 (eurotan adierazita (€))	
TARIFA 1	TARIFA 2





Usurbilgo Udala

2024/02/29

Gutxieneko o tarifa	Egindako kilometroa	Itxaroteko o ordua	Gutxieneko tarifa	Egindako kilometroa	Itxaroteko ordua
6,0993	1,2967	24,8831	7,2700	2,0771	39,1061

Taxiaren Erregimen Bereziko Eremuaren bokazio nagusia eskaintzaren eta eskariaren artean desoreka sortzen den egun eta orduetan taxi-zerbitzuak modu bateratuan ematea denez, hura eratu ondoren, 2024an aplikatu beharreko hiri-tarifaren proposamena honako hau da:

2024ko HIRI TARIFAREN PROPOSAMENA (eurotan adierazita (€))								
TARIFA 1*			TARIFA 2**			TARIFA 5 ***		
Gutxieneko tarifa	Egindako kilometroa	Itxaroteko ordua	Gutxieneko tarifa	Egindako kilometroa	Itxaroteko ordua	Gutxieneko o tarifa	Egindako kilometroa	Itxaroteko ordua
5,964693	0,837677	24,320055	6,91065	1,299642	32,426738	6,925205	1,345130	33,561597

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo bost minutuko itxaronaldia barne hartzen du.

(\*) Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da, 07:00etatik 22:00etara

(\*\*) Tarifa hau egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. Era berean, II. Tarifa aplikatuko da 07:00etatik 22:00etara igandeetan eta dagokion autonomia-erkidegoko eta tokiko araudian ezarritako jaiegunetan, bai eta larunbatetan eta abenduaren 24an eta abenduaren 31n ere.

(\*\*\*) Tarifa hau ostiral, larunbat eta jai-bezperetako 22:00etatik larunbat, igande eta jaiegunetako 07:00etara aplikatuko da.

Aurreko proposamenaren esparruan, Buruntzaldea eskualdea osatzen duten udalerriek egokitzat eta erabilgarritzat jo dute ondorengo egunetan deskribatutako tarifa-erregimenari heltzea, 2. tarifaren pean:

HERRIA	DATA
Andoain	Ekainaren 24an (San Juan)
Astigarraga	Uztailaren 26an (Santa Ana)
Hernani	Ekainaren 24an (San Juan Bautista)
Lasarte	Uztailaren 1an (San Pedro)
Urnieta	Irailaren 30an (San Miguel)



Usurbilgo Udala

2024/02/29

Usurbil	Uztailaren 2an (Santa Ixabel)
---------	-------------------------------

## Kontuan harturik

Herriko eta herriz kanpoko Garraio Publikoari buruz ekainaren 29ko 2/2000 Eusko Legebiltzarreko Legearen 3.3. eta 17.6 artikuluek diotenez, Udalari dagokio tarifak onartzea.

Gauzak horrela, Lurraldea Batzordeak, 2024ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Ainhoa Arrozpide, Iratxe Begiristain, Xabier Aranburu, Xabier Otxoa eta Petra Romeroren ALDEKO botoekin, hau da, AHO BATEZ, luzatutako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**BAT:** 2024ko hiri tarifaren proposamena onartzea.

**BI:** Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko arduradunari onespeneren erabakia bidaltzea behin betiko onspena eman dezan.

**HIRU:** Erabaki honen ziurtagiria herriko taxi titularrei (Joxe Kruz Etxabe Etxabe eta Anjel Biurrun Garnica), G.TAXI Gipuzkoako Taxisten Elkarteari, AGITAX Gipuzkoako Taxisten Elkarteari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio Departamentuari bidaltzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## 9.- MOZIOA: PALESTINA (2024IMOZ0001).

Antolaketa batzordearen 2024ko otsailaren 21eko bilkuran Palestinaren inguruko mozioa eztabaidatu zen eta gehiengoaren aldeko botoarekin onartu zen.

Udalbatzarrak mozioa aztertuta eta Antolaketa Batzordeko irizpena kontuan hartuta, mozioa gehiengoz onartu du. Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea eta Petra Romero Pozo.



Usurbilgo Udala

2024/02/29

Abstentzia: Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe eta Josune Urkola Larrarte.

Beraz, mozioa gehiengoz onartu da.

Honela dio Udalbatzarrak gehiengoz onartutako mozioak:

“Gernika-Palestina herri ekimenak Elkartasun Aktiboa izeneko inizatiba martxan jarri berri du. Ekimenaren aurkezpenean adierazi zutenez, zoritxarrez, dagoneko **25.000 pertsona hil dira Israelgo okupazioaren bonbardaketak hasi zirenetik** eta sarraskiak, tamalez, ez du etenik. Hildakoek izen-abizenak dituzte eta askotan islatzen den hildakoen “anonimotasun” hori salatzeke, **ELKARTASUN AKTIBOA** izeneko kanpaina jarri dute martxan, gutxienez, 25.000 pertsonak parte har dezaten honako helburuekin:

1) Ekarpen ekonomikoa ematea izango da, batetik, Benjamin Netanyahu nazioarteko epaitegien aurrean eramateko eta, bestetik, Gazako herritarrei Mundubat euskal GKE-ren bitartez proiektuak bultzatzeko honako kontu korrontearen bitartez: ES0530350083240830140015 (Laboral Kutxa)

2) Gutxienez, 20.000 pertsonok Palestinako bandera eta kanpainaren karteltxoa denda, etxe, ikastetxe, auto edota enpresetan jartzea formatu desberdinetan.

Egoera jasanezina da. Palestinaren eta Israelen arteko gatazkaren gogortze izugarria gertatzen ari da. Hamasek urriaren 7an egindako erasoak, Israelgo indar armatuek Gazari ezarritako blokeo, bonbardaketak eta era guztietako erasoak horren isla mingarriak dira. Hildakoen kopuruak gora egiten du etengabe, eta Israelek proklamatu duen erabateko gerra-deklarazioak eta bere gobernuak iragarritako oinarritzko horniduren blokeoak muturreko zaurgarritasun-egoeran utzi ditu Gazako herritarrak. Ezin ahaztu, gainera, Gazak hainbat hamarkada daramala setiopean, Israelek palestinarren lurak legez kanpo okupatzearen ondorioz.

UNRWak (Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia) baieztatzen duen bezala, Gazan ikusten ari den suntsipen mailak ez du aurrekaririk, egundoko giza tragedia da. Genozidioa da. Nazio Batuek proportzio epikoko hondamendi humanitario gisa deskribatu dute.

Arestian aipatutako guztiagatik, Usurbilgo Udalak:

1. Gernika-Palestina Herri ekimenak abiatutako “Elkartasun aktiboa” ekimenarekin bat egin eta **6.000 €-ko diru ekarpena egingo dio Mundubat** GKeri, Gazako herritarrei proiektuak bideratzen laguntzeko.

**2. Usurbilgo udaletxeko balkoian Palestinako bandera zintzilikatuko du.**

3. Eskatzen du Gazako Lerroaren eta Palestinako lurralde guztien gaineko setioa eta bonbardaketak bertan behera uztea, bai eta laguntza humanitarioa sartzen dela bermatzea eta korridore humanitarioak berehala irekitzea ere.



Usurbilgo Udala

2024/02/29

4. Uste du bake justu eta iraunkorrek herri palestinarren aurkako okupazioa amaitzea eskatzen duela.

5. Premiazkotzat jotzen du elkarrizketa-prozesu bat abian jartzea, bake justu, egonkor eta iraunkorra lortzeko, okupazioaren amaiera eta Palestinako herriak autodeterminaziorako duen eskubidea bermatuz. Hori guztia Nazioarteko Zuzenbidean eta NBERen ebazpenak betetzean oinarrituta.”

#### **10.- MOZIOA: MARTXOAK 8 (2024IMOZ0002).**

Puntu hau batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, hasteko, batzarkideek aho batez berretsi dute gai-zerrendan txertatzea.

EAJ/PNV udal taldeak jatorrizko mozioari kontra-mozio bat aurkeztu dionez, jatorrizko mozioa bozkatu aurretik kontra-mozioa bozketara eraman da.

Batzarkideen gehiengoaren kontrako botoarekin kontra-mozioa ez da onartu, honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Kontrako botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta eta Oskar Santamaria Picabea.

Jarraian, EH Bildu udal taldeak aurkeztutako jatorrizko mozioa aztertu dute eta gehiengoaren aldeko botoarekin onartu dute, honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea eta Petra Romero Pozo.

Abstentzioa: Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe eta Josune Urkola Larrarte.

Honela dio Udalbatzarrak gehiengoz onartutako mozioak:

“Emakumeen nazioarteko egun honetan, bidezkoa da gure gizarteak historian zehar eraldaketa feministak eragin dituzten emakumeen belaunaldiekiko zorra aitortzea, bai genero-agindu eta genero-estereotipoen aurkako erresistentzietan, bai mugimendu feministaren borroka kolektiboetan.



Usurbilgo Udala

2024/02/29

Sistema patriarkalak emakumeen ideiak ikusezin bihurtu ditu eta haien aktibismo politiko eta soziala ukatu ditu, beraien aldarrikapenak isilaraziz eta komunitateen aldeko lorpenen ebidentziak ezabatuz. Gainera, sistematikoki ezkutatu dira jatorri eta tradizio kultural desberdinetako emakumeen, emakume arrazializatuen, lesbianen, dibertsitate funtzionala duten emakumeen eta adineko emakumeen ekarpenak.

Zehazki, arreta jartzen dugu adineko emakumeen egungo belaunaldian, sistematikoki estereotipatua eta diskriminatua den belaunaldi horretan, sozialki garrantzirik gabekoa bihurtu duten horretan. Gainera, ikusezintasun hori ahulezia handiagoko egoerak ezkutatzen ari da, hala nola prekaritatea eta pobretzea, nahi ez den bakardadea, osasun-arazoak eta indarkeria matxista motak.

Emakumeen ahalduntze-prozesuak tradizio teoriko, politiko eta filosofiko feminista baten oinordekotzat hartzea eskatzen du. Horregatik, adineko emakumeek dituzten jakinduriak eta errealitatearen ikuspegi kritikoa balioestea lagungarria da memoria historikoa erreparatzeko. Konponketa horrek aukera ematen digu gure aurreko emakumeak ezagutzeko eta iragana, oraina eta etorkizuna lotuko dituen belaunaldien arteko transmisioa bermatzeko.

Martxoaren 8an, emakumeen nazioarteko eguna dela eta, erakunde ezberdinek eskura ditugun estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar ditugu, genealogia feminista ikusarazteko eta emakumeekin historian izandako ahanzturak konpontzeko.

Udalok, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak garenez, aukera eta ardura dugu, toki-eremuan, emakumeen belaunaldien historia berreskuratzeke eta emakumeek eta borroka feministek udalerrien bizitzari eman dioten balioa aitortzeko, adineko emakumeen egungo belaunalditik hasita. Beraz, Usurbilgo Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Emakumeen **memoria historikoa aitortu eta berreskuratuko** duten proiektuak garatzea, genealogia sortzeko, hurbileko erreferenteetatik hasi eta tokiko bizitzan eragina izan duten talde feministetarako. Eudeli eskatzen diogu konpromisoa hartzeko udalek egin dituzten lan guztiak bildu eta eskura jartzeko bere web gunean.
- Une historiko bakoitzean, tradizio eta ingurune kultural guztietan, sistemarekiko erresistentzia eta erantzuna artikulatu duten **mugimendu feministak aintzatesten** laguntzea.
- Adineko emakumeen, emakume etorkinen, paperik gabekoen, eta abarren ezagutzak eta esperientziak trukatzeko **belaunaldien arteko topaketa- eta elkarrizketa-**guneak babestea, ahalduntze feministarako eta adin eta baldintza desberdinetako emakumeen aliantzarako guneak izan daitezen. Berriki Usurbilen zabalduko dugun Emakumeen Etxea horretarako gune aproposa iznago da.
- **Emakumeen ikusgarritasun soziala** sustatzea-ikuspegi interseksionalaz, bereziki, adineko emakumeena, bere aniztasun osoan, eta emakumeen zahartzaroari buruz, gizartean, nagusi den irudia eraldatuz, adinean eta estereotipoetan oinarrituta.



Usurbilgo Udala

2024/02/29

- Adineko emakumeek esparru publikoan dituzten esperientzietan eta **harreman- eta partaidetza-moduetan** arreta berezia jarriko duten proiektuak bultzatzea, haien aniztasun osoan.
- Errenta baxuenak dituzten **adineko emakumeei**, bereziki alargunei, **ahalduntze ekonomikoa** bermatuko dieten diru-sarreraren eta pentsioen eskaera babestea, eskumena duten erakundeen aurrean.
- Adineko emakumeentzat, bereziki alargunentzat, dauden **laguntza eta prestazio ekonomikoak** ezagutaraztea.
- Udal-eskumeneko **laguntza- eta zaintza-zerbitzu publikoak** indartzea, adineko emakumeei autonomia eta aktibismoa mantentzea ahalbidetzeko.
- Adineko emakumeen aurkako **indarkeria matxistaren eragina** eta hura gauzatzeko **moduak ikertzea** eta horietan sakontzea, emakume horien errealitatera eta beharretara egokitutako erantzunak artikulatzeko.”

## 11.- GALDERAK ETA ESKAERAK.

Ez dago.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:10ean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.**